

Nikolas Ugarte Umerez Barberua

*Oñati, Gipuzkoa
(1942-2021)*

Aurkibidea

Biografia



Ile-apaintzailea. Garai bateko ile-apaindegiko kontuak nola izaten ziren azaltzen du.

Zintak

ONA-039

- **Proiektua:** Oñatiko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Oñati
- **Data:** 2006-10-23
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa - Leturia, Ane
- **Emalea:** Laixan Euskara Elkartea

ONA-049

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-11-27
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

ONA-050

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-11-27
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Ile-apaindegian txanda txapen bidez

- **Erref:** ONA-039/001
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Ile-apaindegian txanda lehen txapa batzuen bitartez hartzen omen zen. Taula bat zuten txapekin eta bezero bat etorri eta ile-apaindegia okupatuta bazegoen, ordua jarri eta txapa hori ematen zioten.</p>

Transkripzioa

- Hona sartzeko, edo behintzat ulia mozteko, betik txanda eskatu bihar da?
- Ba normalmente hemengo ohitturia hori izan da, nik hasi nintzanetik, oin telefono bidez eta lehen ba txapa batzuk eukitten gittuan, bakoitza bere numeruakin eta ha izaten zan zera, oingo telefonuan ordezkua.
- Ha zelan zan, zelan zan hori, txapana?
- Nik badakot ondiok txapa horreik gordeta, nere aittak eukan horrelako tablerotxo bat, eta eozen 30 numero, batetik hasi 30era. Bezero bat etorten zanian, ba, jentia baldin baeuen ba hurringo numerua emuten zotsan, eta txapiori poltsikara hartu eta, ba, kalera juaten ziran, ordua

emuten gotsan eta gutxi gorabehera ordua alleaiten zanian, atzera berriro etorten ziran, sillan jarten zanian txapia txintxiliz jarten ebein txaperuan eta ba telefonuan lanak horrek itten zittuan.

- O sea ke gutxi gorabehera gaur egun Eroski edo halako supermerkatu batera faten bagera... numerua hartzen duna.

- Bai, bai, berdin, berdin, oingo katxarruak elektrikuak dira, ezta? Baiña orduan ez eguen holako zerik, hala izaten zan, tablero baten txapakin. Ondiok nik horreik gordeten dittut nere rekuerdorako.

2. Lehen ohikoa zen ile-apaindegian bizarra moztea

- **Erref:** ONA-039/002
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:01:25. **Bukatu:** 00:04:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Bera gaztea zela ikasketak 14 urterekin bukatu ohi ziren; ikasten jarraitu nahi izanez gero, Arrasatera joan behar. Berak aita bizargina zuenez, haren laguntzaile gisa hasi zen eta 50 urte egin ditu ile-apaindegian lanean. Gaur egun bizarrak ez da mozten ia, baina lehen asko. Kanpoan "barbería" eta "peluquería" kartelak jartzen zituzten. Zenbatero etortzen ziren bezeroak ilea edo bizarra moztera edo kokota konpontzera.</p>

Transkripzioa

- Izan be, zu lanian hasi ziñanian, horrela hasi ziñan, oin dala 50 urte, 50 urte ulia mozten.

- Bueno, ba bai, porke nik oin 65 urte in bihar dittut, eta gure sasueko eskolak, hamalau urtekin hemen Oñatin behintzet akabo eitten gittuan. Batzuek Mondrauera joaten ziran, eta ba neri tokau xatan ba, aitta barberua neukalako, zela falta itten otsan berari be laguntzaille bat, ba neu geldittu nintzan aittakin. Eta nere lagunak, gehixenok, Mondrauera jua ziran.

- Aitta barbero, eta Nikolas, barbero, pelukero, zuk zer jartzen diozu atzetik?

- Ba, ni, neri ez dost zerik emuten, batzuk, oingo gaztiak ez dakit hola ofendiu itten diran barbero edo aittaketan dogunian, baiña nik ez dakot lotsarik esateko barberua izan naizela eta pelukerua be bai porke bixetara, oin ez da bizar kentzen lan asko itten, baiña lehen, bizar kentzen lan asko itten zan, eta gaiñera maestria dau ni goizian hona etorten nintzianian aittakin, lehenengo lana izaten zan, hor atetan geukan bi gantxo eta jarten gittuan bi katxarro, alde batetik eukitten eben "BARBERÍA" eta beste aldetik eukitten eben "PELUQUERÍA", bere zerakin, irudi bat, barberuan irudixa, "La Vacía" esaten dana, holako katxarrotxo bat txintxilizka dauela. "Así que" barbero esatiari ez dot uste zerik, e, desprestigiorik hola danik.

- Gaur egun, egia esan, halako lan gutxiago egingo dozue, askoz be gutxiago, ez?

- Ba bai, bueno, oso gutxi, oso oso gutxi. Lehen normala izaten zan, bezero asko geukan, astian behin behintzat barberixan bizarra kentzen ebeiñak. Batzuk eozen bi aldiz, eguaztenian eta zapatuan, edo bestela

domeka goizian, porke lehen domeka goizetan be nere aittak lana itten eben. Nik justuan ezagutu neben, neuk ez neben lanik in, baiña aitta lanian domeketan ezagutu neben. Eta gutxi edo asko labaiña norberak etxian kentzeko be gehixenak eukein, eta horreatik euen ohittura hori, astian zihar barberixan igual kendu eta gero batzuek aste bukaeran eurak etxian be baitta baiña beste batzuek barberixara etorten ziran bizarra kentzera. Ulia mozteia normala izaten zan hillian behin, eta tarteka-tarteka jente batzuk eozen hamabostian behin kokotia arreglau eta bizarra kendu itten ebeñak barberixan.

- O sea ke gaur egun pentsaitten dogu norberaren irudia zainketa, gaur egungo modia dala, baiña lehenago be jentiak zainketan eben ondo, e?

- Ba bai, bai, segun ze edadetako mutillak, ba horixe, esaten dotsuten moduan, geukan hamabostian behin kokotia arreglaitten ebeñak, eta gero hillian behin ulia mozten ebeñak.

- Eta mutillak, esan gura dot, behin edade bat ezkeroztik jentiak ez otsan hainbeste begiraketan norberaren irudiari?

- Ba ez dot uste, nik neuk nere rekuerdia dakot mutilletan, hola "más bien" neskakin ebitzeiñak, nobixotan eta, gaztiak, ya behin edade batera ezker hori uste dot galdu egin zala.

3. Ilargiaren eragina ilea mozterakoan

- **Erref:** ONA-039/003
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:04:50. **Bukatu:** 00:06:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Zenbaitek uste du ilargiak eragina duela ilea mozterakoan. Berak ez du garbi kontu hau, denetariko kasuak ezagutu ditu eta.

Transkripzioa

- Lehen, garai batean ez dakit hala zan ala ez, ya ohituria baldin baeuken hillian behin etortekua, ze sasoiatan etorten ziren, ze... hori jentia esaten dau illargiari begiraketan xauela, ez dakit zer ulia moztera etorteko eta... Halakorik, zueri, komentarixo horreik eitten dotsue?

- Bueno, ba bai, hori be da gai bat jente batzuek erabilten dabena, lehen be baitta eta oin be baitta. Ni neuk esaten dostat, neuk ez dakittela ze esan, porke jente asko dau, ba, ez dakit, parian tokaitten xatenelako ilbeheran mozten ebeinak, eta hareik be kalbo jarri dira eta beste batzuk berriz horri begiratu ez xauenak ule eder askuakin onddiok be badabitz. Baiña oin be bai, oin be badakot nik bezeruak, motibo bateatik edo beste bateatik ilbeheria igual pasau in xatelako, hurringo ilbehera arte etxoitten dabena ulia mozteko. Eta nik esaten dostet ba hori, hori guretzako txarra dok, e? Porke hori propaganda haundirik ez ein horrenik porke bestela guk ilbeheran bakarrik lana egingo xuau, eta gero hemen begira egon biharko xuau, eta ba hola ibiltten gara bata bestiari... Oin, inportantziaik dakon? Neu ez naiz kapaz esateko, badakit gauza batzuekin baietz, baiña ulian araberan, horixe neuk ez dakit dakon. Nik baiño, beste ze batzueiri preguntau biharko lezkixo hori.

- Baiña zuk egunero, ilbehera ilgora izan, zuk egunero hemen bezeruak bueltaka badabitzu.

- Bai, bai, ez dao horren araberan, ezta pentsau be, bueno! Oin ohiturak aldatu dira, e?

4. Ile-apaindegira joateko egun eta orduak

- **Erref:** ONA-039/004
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:07:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Lehenago aste hasieran bezero gutxi izaten zuten; gaur egun, lana banatuago omen dago. Gainera, lehen larunbat arratsaldeetan ere lan egiten zen eta gaur egun langileek halako gauzetarako tarte gehiago dutela uste du. Ile-apaindegira joateko egun eta orduetan aldea dago emakumezko eta gizonezkoen ile-apaindegien artean.

Transkripzioa

- Baiña zuk egunero, ilbehera ilgora izan, zuk egunero hemen bezeruak bueltaka badabitzu.

- Bai, bai, ez dago horren araberan, ezta pentsau be, bueno! Oin ohiturak aldatu dira, e? Lehen "por ejemplo" astelehena jai eukitten ebein. Nik be ezagutu neben eta nere aittak-eta be baitta ezta? Eta astian hasieran lan gutxi itten zan oso. Oin lana hobeto dao partiuta. Oin sarri pasaitten xaku edozein astelehenetan lan gehixago itten dou zapatutan baiño. Zapatuan ya gizonezkuen behintzet, ez dakit jai giruan jentia ospaketan hasi da itxuria eta lehen, berriz, ez euen holakorik. Eta gero beste gauza bat pasaitten da: lehen fabrikatan be zapatu arratsaldia lana itten zan eta aprobeixaitten ziran lan ordutik kanporako orduak. Oin "entre que" bateko relebua dala, besteko beste gauza batzuek langilliak be, nik uste dot ordu

gehixago dako hola libre, holako gauzak itteko.

- Beraz, zuenian ez da gertaketan emakumezkoen pelukerixetan moduan, han bai, han e, ez egizu azken orduan, ebaikutz edo zapaturako txandia eskatu, ze inposible, ez dago!

- Ez, ez, gizakumien... Nik esaten dotsuten moduan, astelehenian igual lan gehixao itten dozu ebaikutzian edo zapatuan baiño. Ez dao hola egun konkreto bat noiz lan gehixao ala gutxiao itten dozuna, hori ez.

5. Ilea orrazteko modak; ile luzearen moda

- **Erref:** ONA-039/005
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:07:45. **Bukatu:** 00:11:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Aitarekin lanean hasi zenean ilea makinarekin mozten zuten eta gaina guraizeekin konpondu. Bera soldaduskatik itzuli zen inguruan ilea "a navaja" moztea zegoen modan. Soldaduskatik etorri eta Tolosan egon zen lehenbizi pixka bat ikasten. Ondoren 24-25 urte ingururekin Donostian ibili zen ikastaro batzuetan. Ilea mozteko modeloak beraiek aurkitu behar izaten zituzten. Azterketa ere egin zieten ikastaro amaieran. Handik laster modan jarri zen ile luzea, "Beatles"en eraginagatik edo. Moda desberdinak.</p>

6. Aita barbero lanbidean nola hasi zen

- **Erref:** ONA-039/007
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:14:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Bere aita soldadu joan aurretik fabrikan zebilen lanean. Soldadutzan barbero lanak egin zituen eta handik itzultzean ez zuen fabrikara joateko gogorik. Ile-apaindegi baten laguntzailea behar zutela esan zioten eta hantxe hasi zen lanean. Barberoa Irubieta baserriko semea zen. Neska-laguna donostiarra zuen eta hara joan ziren azkenean. Orduan bere aita haren lokalarekin gelditu zen.

7. Lan-orduak ile-apaindegian

- **Erref:** ONA-039/009
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:16:00. **Bukatu:** 00:17:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Lehenago jendea presa gutxiagorekin etortzen zen ile-apaindegira eta berriketari lasai egoten ziren. Larunbatetan arratsaldeko 7ak arte lan egiten zenez, beraiek gaueko 12ak aldera arte ere lan egin zuten inoiz. Domekan goizeko seietako meza entzun eta 7etarako berriz lanera. Baserritarrek domeka aprobetxatzen zuten ile-apaindegira joateko.

Transkripzioa

- Hemen ordu bat, eta beste bat, eta beste bat eta bueno, ba batekin berba ein, bestiakin berba ein, eta...
- Horren gainean nik uste dot apur bat galdu in dala. Nik ikusten neben nere aittan sasoian hemen etorten zian igual bezeruak ta egonaldixak izugarrixak eitten zittuein, e! Batzuek prisa barik etorten zian, ulia moztu ta benga, kontuak kontau ta kontuak kontau. Ta ordutegi maillan-ta... bueno! ordutegi maillan egon da diferentzia bat izugarrixa. Ni hemen zapatuan, ni mutikua naizela, aittakin, gabeko hamaikak eta hamabixak jota dau hemen. Amak sarri ekarten oskun afaixa, bertara. Porke, lehen esan dotsutena, zapatu illunkaran zazpirak arte ero lana eitten zan, eta, ba, jentia aprobetxau bihar izaten eben. Eta nere aittak zapatuan igual hamaikak arte edo hamabixak arte hemen eon eta domeka goizian seiretako mezia entzun ta zazpiretako atzea hemen izaten zan. Eta bearek esaten eben, goizeko zazpiretan, urriñengo basarriko e... zea... gaztiak, etxian euen gizon gaztia, hemen eoten zan ulia mozteko zain. Aprobetxaitten ebein domeka goiza mezetara etorri, ulia moztu... Eta eurak gero etxerantz doiazela, hemen hamarretakua ero eindda tabernan baten, edadeko zeak, gurasuak, aittak, etorten zian meza nausittara. Eta, zea, aldaketia ordutegixan? Bueno, bueno, haundixa egon da, e! Hori neure denporan. Bai.

8. Jaiotetxea eta erreken bide zaharra

- **Erref:** ONA-049/001
- **Iraupena:** 0:05:03. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:05:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

1942an jaio zen Nikolas, Arantzazuko Ama kalean. Kalea bera zuten jolasleku mutikotan. Erreka estali aurreko erreken ibilbidea azaltzen digu. Harrobirik ez zegoenean, igeltseroek euren lanerako harea errekan jasotzen zuten, uholdeen ondorenean.

Transkripzioa

- Hasteko berrogeta bikua zarala komentau dogu lehen, eta nun jaio zifian?
- Oñatin.
- Oñatin baiña, kalia?

- Bai, "Calle Nuestra Señora de Aránzazu" zan lehen. Oin be uste dot hola jarraiketan dauela ondiok horrek.

- Ez.

- Zela ke ez?

- Atzeko Kalia.

- Ez, Atzeko Kalia da Itturritxoraiño iturriraño, eta gure kalia da handik gora "Nuestra Señora de Aránzazu" handik Benedinetaraiño.

- A bai, Arantzazuko Ama Kalia izango da hori.

- Zazpigarren, zela esaten da, zenbakia edo numerua edo.

- Kalian jaio ziñan, eta gurasuak bertakuak ziran be bai? Oñatiarrak?

- Bertakuak, oñatiarrak.

- Bertan, kalekuak edo...?

- Kalekuak bixak, bai.

- Eta zelakua zan, hori, Arantzazu Kalia?

- Arantzazu Kalia? Bueno, ba badau diferentzia oingugandik porke oin hor dauen plazuelia umiak eta jolasteko ta horreik bi plazuela horreik, ba horreik ziran lehen, gora goiantzela, Arruen fabrikia, aixkora fabrikia zan, eta bestekaldian euen, ba "Economato de Garai", eta gero euen holako ortu batzuek euzen, baiña baikotza bere paretiakin, ba kale estu bat, gure jolaslekua ha izaten zan, guk han itten geben fubolian, pelotan pareta ezkiñan baten, ez euen kotxerik, bakar-bakarrik behi karron bat edo hola etorten zanian nunbaitetik, ezta? Baiña kotxian ta billurrik ez euen ta jolaslekua kalia izaten zan lehen, bai.

- Zuk han errekoa tapau aurretik be ezagutuko zeben, ezta?

- Bai, ezagutuko ez neben ba, horixe, errekoa etorren ba, por ejemplo oin, "Argi Elektrizidadia", handik pasau daue ezta? Baiña lehen etorren gure etxe atzekaldetik eta joten eben Potteuen etxe atzekalderaiño, eta Potteuen etxe atzekaldetik ba, urteten eben justu, hemen badau zubixa, hor dentistiak badako Arabaolazak, hor urteten eben errekiorek, bai.

- Eta hor euen tarte hortan euen Arrue fabrikia, hori gehixen hori Arruen fabrikiak erabilten eben, eta oin hori da, ba honeitxek, Bidebarritta ez, baiña ze esango dotsut nik, ez dakit zela esan, Itturritxoko hori atzekalde hori, hori prazueliori ta, hori dana lehen fabrikiana zan, Arrue fabrikiana zan, hemen badau oin...

- Esaten dozu orduan Ekonomatutik dentistiaren etxe ostera zuzenian xoiala?

- Ez, ez, ez, oin bai, Ekonomia... a, etxoin, itten eben, e, Xegunduen etxia badakitzu zein zan? Zuk bai, badakitzu zein zan Xegunduen etxia, Xegunduen ez dakitzu zein dan? Oin be han dau ba ondiok etxiea, Galfarsoro, Felipe Gorosmendi eta bizi dirana?

- Ez dittu /ettut/ ezaguketan.

- Ez zea, ezagutuko dittozu, Portalekuan! Portalekuan, bueno ba, itxe horren Xegunduen atzekaldian, juntaitten ziran Ubao errekoa eta Olabarrieta errekoa, horrek jarraiketan eben gure etxe atzekaldetik, Txorin etxe atzekaldia eta horrek jotzen eben Txarraskon etxe atzekaldetik Potteuen ta Bar Torre, Bar Torre, han atzekaldetik eta gero handik zuzen-zuzen urteten eben honaxe zubi ingurura urteten eben errekiak, eta gero ointxe dakon kursua errekiak. In ebein Xegunduen atzekaldian hartu eta han kalian, kamiñuan azpittik doia errekoa oin zuzen urteten dau Itturritxora urteten dau, lehen itten eben hau rekorrido hau itten eben. Eta errekek, ba bueno, guk ezagutu izan dogu hor Xegunduen atzekaldian itten zan holako remanso bat, erreka bixak juntaitten zien lekuan, eta uraundi batzun ondorian herriko igeltseruak hara sartzen zien eta urak ekarrittako hareia eta zera etara eta aprobetxau itten ebein, euren lanetarako. Iñaxio Urdintxuenak eta hor inguruan egozen igeltseruak han sarri ekusten nittuan nik hareia etaraten.

- Batzuk amorraiñak harrapaitten eta bestiak hareia etaraten.
- Kanterak hasitta euzen ordurako, baiña ondiok ez ziren kanterak zaharrak, e? Herrixan euzen holako puntuak bastante euzen, igeltseruak aprobeixaitten ebeña eurandako hareia etarateko.

9. Garbitoki eta ur-saltoak

- **Erref:** ONA-049/002
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:05:03. **Bukatu:** 00:09:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

Roke Azkuneko presan ikasten zuten igeri egiten. Arrue lantegian Etxatxon hartutako urarekin sortzen zuten argindarra. Portalekuko garbitokian garbitzen zituzten arropak.

Transkripzioa

- Eta erreketan baiñurik eta...?
- Baiñuak? Bai, bai, bai, hortxe bertan be, errekak bi horreik juntaitten ziran lekuan, Ubao errekiak, Roke Azkune badau ba oin hor? Hor euen presia bastante haundixa, 5-6 metroko saltua ta presa azpixa zan pozu bat ederra, hor inguru hortako mutiko danak han igarixen ikasi ebein, nik neuk ez neben ikasi baiña ha izaten zan igari lekua, bai.
- Eta esan dozu Urien lantegixa edo, Urien edo zelan esan dozu?
- Ez, Urien ez, Arrue, Arrue Hermanos zan, aixkorak itten zittuein hor, bai, aixkorak, ez zan hola langille askoko zera baiña igual hamar bat lagunek lana ingo ebein, bai, horreik eukein euren ura; Etxatxoko presia, Etxatxoko presia zuk errekien sentiduan begiraketan badozu, ezkerreko aldi han San Martin azpixon dator kanala, horrek kanal horrek ekarten eben ura lehenengo Portalekura, Bar Aranzazu, haren aurrekaldian euen labaderua, erropak garbiketako.
- Nik labaderua ez dakot goguan.
- Erropak garbiketara lehen ez euen etxetan labadorarik, nere amak eta nere arrebak hara joaten ziren erropakin; ur hori pasaitten zan handik labaderotik, eta labaderuen albotik beste kanaltxo bat joaten zan ba Triana, Triana Txaton etxia ta badakitzu zeintzuk diren? Mardona ta bai. Bueno ba, haren atzekalderaño joaten zan eta gero handik sartzen zan Arruen fabrika atzekaldera, eta harek eukan izugarritzko pozua, izugarritzkoa edo, nehiko pozu haundixa, argindarra sortzeko, berak sortzen eben argindarra falta itten otsanian, ez euenian argindarrik, berak eukan saltua han eta handik sortzen eben argindarra, bai, eta gero horrek jarraiketan eben, ur horrek jarraiketan eben ba, ze esango dotsut nik, Santurrutxura, zan baserrixa nehiko famosua hemen, ortuak eta eukan ba barazki zerak, ta han euen beste labadero bat.
- Horrekin akordaitten naiz.
- Han euen beste labadero bat, horrek kanalorek beorrek jarraiketan eben hemen Bidebarritta hemen danian Santa Anaraiño, Santa Anan monjan terrenotan sartzen zan eta urteten eben oin polideportibuan aparkamientua egin daue ba?
- Ha lurpekua?

- Ez, ez, gaiñian, gaiñian, hor kanala danian gaiñian joaten zan ura lurpeian ez, hemen Bidebarrittako ortu danak ha ura aprobetxaitten euein erregaitteko, hemen hau dana lehen ortua zan, e? Hau dana, bai alde batera eta bai bestera, errekiak honuntza dana ortuak ziran, ta ha kanala aillegaitten zan zeraiño, San Juan Kaleraiño, eta oin aparkamentu subterraneotarako sarrerria in dauen lekuan euen beste labadero bat. Baikotzak, auzounak baikotzak bere labaderua eukein, hemen euzen mordua euzen labaderuak, kontaitten hasi ezker. Ta han euen bat. Ta gero handik, hango labaderuan erabilli ur hori eta justo oin Turismo Bulegua badau ba? Han in daue ba ze bat, ze in daue, lehengo errota baten, zera in daue holako, lehen errotak zela funtzionaitten ebein, bueno ba han harek ur harek urteten eben erre kara ja. Hori kanalori hantxe akabaitten zan. Hori urori be erabiltten eben han San Juan Kalian oin Turismo Bulegua dauen lekuan lehen euen zerrria, eta harek zerra harek be hori urori erabiltten eben argindarra egitteko.

10. Kanaleko harraskak eta zerrategiak

- **Erref:** ONA-049/003
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:09:15. **Bukatu:** 00:12:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Ubarkaldetik San Migel errotaraino ur-kanala zegoen eta bere bidean garbitoki batzuk eta bi zerra zeuden. Etxeetan ura bazegoen arren, garbitokietako ur hotzetan garbitu behar izaten zuten arropa.

Transkripzioa

- Oseake, herri guztian zihar zoian kanala, ezta?
- Herri guztian zihar, bai, bai, bai. Hori kanalori, pentsa eizu, hasten zan gaur Ubarkalden etxiak, hantxe hasten zan errekatik, ta leheningo erabiltten eben hor gaur Olakua, Poligono Olakua dan zerian, hor euen zerra bat, harek erabiltten eben leheningo ur horreik, harek botaten zittuan erre kara, gero berau atzera berriro hartzen zan, ta herri dana kanalak trabeskaten eben hori.
- Baiña hori erre kia ez zan, hori kanala zan, ta...
- Hori kanala zan baiña erre kako urak erabiltten ziren.
- Herrixak indako kanala zan? Zeiñek egin ze ben kanala? Herrixak indakua? Zuk holan ezagutu ze ben?
- Guk hola ezagutu geben. Ba bai, seguru asko hori herrixak inddako lana izango zan, bai, bai, porke lehen esan dotsuten moduan labaderuak ur horrekin balixaitten ziran.
- Lehen herriko bizi lagun guztiak kalera fango ziren erropak garbitzera.
- Erropak garbiketara? Bai, bai, duarik be ez, hori duda barik.
- Eta orduan, baiña, etxietan ura egongo zan
- Ura, bai, bai nik nire etxian betik ezagutu dot ura.
- Erropak garbitzeko...
- Bien, baiña ez zan egoten hainbeste aukera, fregaderatxo bat, eta zu, zazpi anai-arreba, gurasuak, erropa asko juntaitten zan. Oin besteko igual sarri ez zan garbittuko erroparik baiña barriñokada ederrak hartu bai, eta danak haraxe joaten ziren.
- Eta ze ambiente egoten zan labaderotan?

- Ona, egongo ez zan ba? Andrak juntaitten ziranian? Klaro ke bai, ona. Bai, bai, horixe, "lo que pasa que" betik ura hotza, eta neguan be erropak garbittu in bihar eta ur hotza. Oingo moduan ezta? Ur epela ta zerian, ur hotza.

- Ez baiña esan nahi dot kalian be giroa egongo zala, kantuan andrak eta.

- Kantuan ez dakit baiña kontu-kontari? Bai horixe, bueno! Klaro ke bai.

Hori oingo gaztiak ez daue ikusi, baiña guk hori holaxe ikusi dogu eta ...

Hor kanala egon danik be askok jakin be ez daue ingo oingo gaztiak, baiña ondiok arrastuak badauz. Zuk San Martin ezaguketan dozu? Zein dan San Martin, Roke Azkune? Roke Azkune be ezta? Ez. Bueno ba hemen badau ba rotonda bat hona etorteko? Harek kaliak jarraiketan dau ba Legazpi aldera edo Zumarraga aldera? Han oin Gaztetxia in daue, hor San Martiñen? Bueno ba, horren azpitan dator, ondiok be hor dator kanala, hondatuta dau, e? Lurrikarkin hondatu indda baiña zati bat ondiok han dau bistan, bai.

- Azkenian hori da herrixaren antolaketia edo, ez?

- Klaro ke bai. Horrek falta itten eben eta ba zu, momentu hartan haxe holaxe aprobetxaitten zan, bai.

11. Eskolan mojekin

- **Erref:** ONA-049/004
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:12:05. **Bukatu:** 00:14:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Ospitalean hasi zen eskolan mojekin. Orduko umeek negar asko egiten zuten eskolan.

Transkripzioa

- Eta eskolan nun ibilli ziñan?

- Ni eskolan? Ba lehenengo guk Ospitala esaten gotsan, oin Residencia esaten dan moduan orduan Ospitala zan, ta monja eurak erabilten ebein eurak hori, Ospitalian, harik eta ba ez dakit nik maristetara zenbat urtekin pasaitten giñen, han bost gela egozen, hamalau urtera arte izaten zan, ba 7-8 bat urte arte? Ospitalian izaten zan, parbularixuak oin dian moduan, monjakin, eta gero Maristak, hemen gure sasoian Maristak euzen.

- Unibersidadian?

- Unibersidadian, ziran bost gela, atzenengo gelan batzuk bi urte itten ebein, baiña hamalau urte arteko zerak maristekin izaten zan, herriko gehixenak, auzetatik hola batzuk etorten ziran, beste batzuek ez, baiña kaleko mutikuak hara joaten giñan maristetara.

- Eta monjetan, ze moduzkuak ziren monjak?

- Bueno, ez dakot nik holako... bueno! Ni akordaitten naizena da oingo aldian umiak itten zittuein negarrak eskolara ta fateko, bueno, ez dakit zeatik izaten zan.

- Gogorrek zian?

- Ez, bai zera, gogorragatik ez, ez geontzen ohittuta edo, ez dakit zeatik izaten zan, gogorragatik ez, monjak zela izango zien ba gogorrek. Ez, ez, nik ez dakot... ba, bakarren bat betik egoten da, ezta?

- Zorrotzagua edo.

- Baiña ez dot uste, ez dot uste, sarritan merezi be bai noizian behin

zapladako bat. Baiña negarrak, kalietan ekusten ziren umiak arrastan eruan ezindda eskolatara, nik hori geruau ikusten neben nere sasoian ez, baiña geruau ikusten neben zelako negarrak, geure denporan be ume batzuk jarten ziran erueten euein momentutik jarten ziren urteteko ate kontran ta negar ta negar ta negar, hola baiña, baiña...

- Eskolan bertan?

- Eskolan bertan horixe, bueno, negarrak izaten ziran... pufa! Izugarriak itten ebein. Zeatik? Ez dakit. Oin oingogo umiak hainbeste gauza ikusten (di)ttue oin umiak, ba oso gutxik itten daue, nere illobia oin hasi da eruaten, banakan batek edo hola, igual egunen baten beorrek be ingo dau igual, ezta? Baiña oin zortzi egun egonda gaixorik bai, ha bueno, esan otsanian amak ikastolara, "echando betún" deziditten joateko.

- Diferente.

- Bueno, eta ba oin dakoi jostailluak, beste modu batera zeraittettue, eta orduan ez euen ez jostaillurik eta ez istorixarik!

12. Eskolan maristekin

- **Erref:** ONA-049/005
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:14:45. **Bukatu:** 00:16:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Maristetan 14 urte bete arte ikasi zuen eta handik aitarekin lanera joan zen.</p>

Transkripzioa

- Eskolan? Horixe ez dakot goguan, baiña ez dakit, nik izango zan bost-sei-zazpi urtekin edo izango zan? Bost-seikin, han igual urte paren bat edo uste dot nik ingo gebela e? Hola ez naiz ni akordaitten hola exaktamente zenbat urtekin. Baiña goguan dakotena da horixe, nik hamalau urtekin itxi notsan eskoliari, hamalau-hamabost bittartian. Bost urte izaten zian maristekin, eta nik igual sei urte ingo nittuan maristetan, bosgarren kursuan bi urteko zera, danak ez euen hori itten baiña uste dot neuk hola in nebela. Hamalau urtera itten zan lagunak, orduan aurrez be ya jentia Mondrauera joaten zan, baiña ondiok bastante bertan herrixan geldiketan zan, taillerren batera, aprendiz ofizion bat ikastera edo... nik aittagana.

- Ya hamalau urtekin hori.

- Hamalau urtekin, bai, bai, hamalau urtekin.

- Osea ya hemen amaitzen zian ikasketak, eta nahi zeбенak jarraitzia, Mondrauera.

- Nere lagunak batzuek Mondrauera joan zian, beste batzuek hemen bertan taillerretan hasi zian, gero fabrikak eurak be emun osten aukerak bertan zerak itteko, kursilluak eta gabian ta illunkaratan ta hola. Garaik be euki eben hantxe eskola bat montauta, Aleitarren bajuetan eta holako gauzak egon zien, ezta? Baiña Mondrauera peritajia gehixen batzuk, peritajia horko orduko peritajia izaten zan. Ba ordurako be ya baeuzen gazte batzuk ya karrerak ez dot esaten akabota baiña, ya Mondrauen ebitzeiñak estudixaitten, bai.

13. Eskolak erdaraz eta diziplina zorrotza

- **Erref:** ONA-049/006
- **Iraupena:** 0:04:33. **Hasi:** 00:16:25. **Bukatu:** 00:20:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskolak erdaraz jaso zituzten. Maristetan diziplina gogorra zegoen. Maisuari aurre egin beharrean ere izaten ziren batzuetan.

Transkripzioa

- Eta maristetan, bueno monjekin, erderaz ingo zetsuen monjak, ezta?
- Ez naiz akordaitten, baiña uste dot baietz, maristakin bai, erderaz.
- Kanpotarrak zian?
- Ba tartetan euskaldunen batzuk eta etorten zien, direktoria urte askotan izan zana hermano Carlos hau uste dot Antzuolakua zala ta euskeraz be itten eben, baiña eskolarik eta hola ez, ezta pentsau be ezta. Naparrak be bazian banakan batzuk, bai, euren artian.
- Eta Maristak gogorrak zian?
- Hareik bai, haik gogorrak zien.
- Zorrotzak.
- Haik gogorrak zien. Haik ya "dictadores". Han goizeko beatzittatik eguardiko hamabittara, eta ordu bittatik bostetara izaten zan eskolia, eta beatzittan joan eta danoiri jarten oskuen zerian, patixuan, illaran. Eta atzenengoko urtian, g(a)iñera, akordaitten naiz euki geben direktoria ba zan la letxe esaten dana. Harek pentsau eizu, formaitten zittuan taldiak eskola barruan, "equipos", eta arduraduna, ni bastante aldiz izaten nintzan arduraduna, ez dakit zeatik, haundixenetako bat nintzalako edo zeatik, eta sartu oskuen buruan hola norberak zera, norberan lagunak, batzuk egoten dia leku guztietara berandu aillegaittian diranak, ba geuk zela exijiu "hi, etorri" porke gero haren araberan emuten oskuen punto batzuek, eta hillen atzenien sari batzuk, ez dakit zer sari, ez naiz akordaitten zer sari izaten zien, baiña behintzet bai emuten oskuen holako sari batzuek, ezta? Eta geu arduraketan giñan lagunairi: "Hi, benga e, argi porke", hainbesterañokotxe zerakin.
- Hori egurra emutia modukua da, ezta?
- Bueno bien, baiña aparte egurra be baitta. Ni akordaitten naiz neure koiñatua, oin nere koiñatua dan bateri behin, galdera bat in, ta ez otsalako ondo erantzun, aurrekaldera pasau eragin, ipiñi han belauniko horrek hermano Carlosek hasi blou, blou, blou, hamalau golpe emun otsan, ez hola zerak baiña bai, nehiko.
- Min emuteko modura.
- Bai.
- Min eta aparte, han danen aurrian.
- Danan aurrian, danan aurrian, hori izaten zan zera.
- Zeatik hamalau golpe?
- Ba horixe, ha hasi zan, oso nerbiosua zan maixua be, hamalau moduan izan zekien hamar edo izan zekien hamasei, ezta? Baiña guk lagunok edo han geontzenak horixe dakou buruan, hola guk lagun artian kontu horreik etaraten dittugunian, holako gauzak urteten daue berihela, platora. Hamalau, e? daunba, dunba, dunba, hamalau emun otsan eta gero beste batzuketatik be, maixu batzuk euzen nehiko gogorrak, nehiko gogorrak, bai. Nik neuk desarroillua nahiko aguro euki neben, gazterik in nintzan haundi,

ezta? Eta bat euen "maixo txikixa". Ta neri ondiok lagun arteko afarittan eta batek esaten dost: "Hi izan hintzan bakarria maixu bateri...", jotia intentau nontan eta heldu notsan besotik. Bera baiña haundixaua ixa nintzan ni, eta ez notsan itxi jotzen. Dios, harek hartu nontan neri gorroto bat!

- Klaro, berandako umia zihan.

- Bai ba, eskolako sarreran zan, ondiok akordaitzen naiz nun, eta oin lagun arteko zera eukitten dogunian, sarri esaten dost lagun batek, "Heu izan hintzan han bakarria"! baiña ez, ni bakarrik ez, beste batzuk be baeuzen frente...

- Bai, frente itxia orduan maristeri izango zan kriston reboluziñua.

- Honbre, horixe zala, ez pentsau, e? Gero beste batzuekin oso ondo arreglaitzen nintzan, oso ondo.

- Danetik egongo zan.

- Bai, han momentu hartan ez dakit zeatik, uste dot ikusten ninduala, ba esan dotsueten moduan, aguro desarrollau nintzalako ba ez dot esaten nagusi ezta, baiña bai, hola deportian ta be inddartsua nintzan ta, holako gauzak bai, ta harek hori ez eben onarketan itxuria.

- Zeluak. Bera txikiña zalako igual inbirixia.

- Zeluak edo... bera txikixa zan, "maixo txiki" eukan zera, bai, ezizena.

14. Batxilergoa maristetan; Ospitalean bizargin

- **Erref:** ONA-049/007
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:20:58. **Bukatu:** 00:25:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Zer ikasketa mota izaten zuten. Nikolas maristetan bukatzeaz zela, batxilergoko lehen urtea eman zuten maristek. Asteaz sei egunetan joaten zen eskolara; zapatuetan Ospitaleko gizoni bizarra kendu ondoren.</p>

Transkripzioa

- Eta ze ikasten zenuen?

- Ze ikasten geben? Ba hori "lo básico", handik ba "sumar, restar, multiplicar y dividir", eta gero kebraduak eta, oin ez dakit kebraduak dauen oin? Badauz oin kebraduak, "un medio y dos cuartos y tres cuartos" eta holako zerak eta?

- Nik horreik ikasi (di)ttut.

- Eta gero algebra apur bat, baiña algebrakin pasau xakun, ez algebrakin ez, hori pasau xakun frantsesak, 5. kursuan maixu batek asignatura moduan hasi xakun frantses irakusten eta urte bete in geben. Eta gero hurringo urtian aldatu ebein direktoria, 5. urtia direktoriak emuten eben eta harek zera... ez, geixki nabil. Batek intentau oskun kontabilidadia, kontabilidadia intentau oskun batek irakustia, ezta? Eta urtebete in geben kontabilidadia asignatura moduan, eta gero beste maixu bat etorri zan eta harek kontabilidadia alde batera itxi eta gura izan oskun frantses irakustia, eta geldittu giñan ez kontabilidate ta ez frantses. Kitto!

- Zuek oso triste, ezta?

- Bai zera, ordurako ez zan, orduan e, eta ba horreitek, eta behin hamalau urterako ba esaten dotsuten moduan, ni 5. urtian nenguela sortu zan maristetan batxiller zera, leheningo urtia, bai, eta eskatu ebein

boluntarixuak, aber zeñiek gura eben batxilleratua hasteia, ezta? Ta sortu zan talde bat eta han hareik hasi ebein gaurko estankukua Irizar ta Kintin, Jose Luis Kintin esaten gotsana ta kuadrilla bat, Leontxi Lana ta hola hareik batxillergo leheningo urtia hasi ebein maristatan. Ez naizena akordaitten urte asko ez ebein ingo porke esan dotsueten moduan han hamabost urte arte edo egoten zan, eta gero ya joaten zienak batzuk joaten zien Mondrauera, beste batzuk joaten zien beste eskola partikular batzuetara eta hola joaten zien, baiña hasieria han emun otsain batxillerrekuia.

- Eta zu aittakin lanera.

- Ni aittakin, nere aittak laguntzaillia bihar eben eta ba benga, haraxe, eskolan nebillela be joaten nintzan lagunketara, porke nik dakot goguan zapatu goiz danetan goizeko zortziretarako joaten giñan Ospitalera, hango gizonairi ulia edo bizarra edo kendu, ta ni beratzixak arte, aitta beratzittan barberixara eta ni joaten nintzan maristetara eskolara. Leheningo pausuak hareik izan zien aittakin.

- Zapatuan be bei maristetara joaten ziñan?

- Bai, bai, orduan bai, eguardira arte.

- Sei egun egitten zenduezen eskolan?

- Eguena? Eguen arratsaldia? Ez dakit ez geben jai eukitten, uste dot baietz, eguena uste dot jai eukitten gebela, bai. Baiña zapatua goiza? Ta ez dakit arratsaldia be ez geben eukitten. Bai, bai, orduan uste dot arratsaldian be joaten giñala eskolara, bai, eguena eukiko geben eguena arratsaldia jai. Bai.

- Bestela eskolan oporrak eta normal eukitzen zenduzen?

- Bai, bai, udako zerak, bai.

- Gabonetan ta...

- Bai, bai, oporrak bai, baiña astian zihar, ta gero asmau zittuein beste ordu horreittatik kanporakuak, "clases de vigilau" ta deberiak ittia gura ebenak han bertan ta holako gauzak, baiña bestela bostetan akabaitten geben zera, eskolako lanak, bai.

15. Aitaren hasiera bizargin lanetan

- **Erref:** ONA-049/008
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:25:12. **Bukatu:** 00:29:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Bere aita mutikotan aprendiz gisa ibili zen; soldadutzan ere bizargin lanetan jardun zuen eta handik itzuli zenean hasi zen orain seme-ilobek bizargin-ile-apaintzaile jarraitzen duten lokalean.

Transkripzioa

- Eta aitta pelukerua zan.

- Aitta, nere aitta, bai, barberua, "barbero-peluquero". Bai, kartelian jarten eben alde batetik "barbería" eta beste alde batetik "peluquería".

- Doroteo, izena.

- Aittak Doroteo euken izena. Nire aittak kontaitten eben soldau joan aurretik itten eben beste barberixa baten, oso popularra zan, Felipe Goixenetxe, Txintxurreta, hemen zerian hementxe plazuelan, Itturritxoko plazuelan, gero paragerixia izan zana eta gero eskopetak saldu zittuana ta...

- A, ni hantxe jaixua naiz, baiña nik han betik eskopeta dendia ezagutu dot.

- Ba lehenao barberixia zan, nere aitta aprendiz harekin ibilli zan. Garaiñian be itten eben lana eta gero illunkaratan horrekin. Ta kontaitten eben soldadu joan zan eta soldadutzatik bueltau zanian, ez euen itxuria oingo legerik, eta etxian fabrikara bialketia gura izan ebein eta joan zan fabrikara Gararaiñera, ta esan (e)i otsain itxoitteko apur bat, leister hots ingo otsailla. Goruzkuan sartu zan oin ni nauen barberixan, eta han euen barberuak esan (e)i otsan: "Joño hi, Doroteo, enterau nak soldautzan barbero egon haizela, bai? Ta, ba nik hartuko ñekek ba hemen mutil bat lagun itteko". Ta bearek ez eukan fabrikarako gogorik eta "Bai?" Eta, "Ba bai". Ta ba, "Noizdik?", eta "Beittu, gura badok geldittu, hor dakok batia". Eta kitto, holaxe.

- Kasualidadez.

- Ugartetarron pelukerogintzia hola hasi zan.

- Kasualidadez aurrekua be Ugarte zan, Irubietako baserrikua, Lorenzo Ugarte, bai.

- Zure senidia?

- Ez, ez. Bueno, Ugarte aldetik ez, ama aldetik token bai euki bihar neben, baiña ez, nere aitta eta horren aldetik ez dot uste euenik ezen zerik, baizik horixe parian tokau zala. Eta gero haregandik esaten eben gure aittak nobixia, andregaixa, ba, donostiarra billatu eben eta emakumiorrek Donostiara eta Donostiara eta Donostira eta, bueno, ba, Donostiara joan zan eta lokalakin nere aitta geldittu zan, errentan, errentan geldittu zan. Eta horrek dako pelukerixia ondiok be esis..., Donostiara joan zan harek, ondiok be esistitten dau, "Bar Alcalde" hurringo atia, han jarri eben pelukerixia, eta oin ha pelukerixa ha dabil beari lagun in otsan baten alabiak, riojano baten alaba batek dabil ha lokala, "como peluquería mixta".

- Oñatittik fandakuak.

- Bai.

- Bueno, orduan aittak suertia euki zebein alde batetik lana topau zabelako holan, eta bestetik lokala laga otsalako, ez?

- Bai, bai.

- Hara hura joatitik lokalakin gelditu zan.

- Hori da, bai.

- Horrek esan gura dau zuek Ugartetarrok ya ehun urtetik gora zoiazeilla pelukero.

- Ehun urte ez, hainbeste ez dot uste, nere aitta jaixo zan "el año 1906", botako dogu 23 urte soldautzaia ittera orduko, ba, horixe, 29. Donostiara noiz joan zan horixe ez dakit, harekin zenbat denpora in eben hori ez dakit, baiña horixe ez dakit, bestela "1930 números redondos, al 2008, 78 años", 78 urte.

- Baiña zuk zeuk 50 in (di)ttozu ya.

- Nik 52 in (di)ttut, 52 urte in (di)ttut nik aittakin eta gero aitta hil zanian neuk...

- Klaro, aittak ingo zittuan igual beste hainbeste baiña berak aurretik Donostiara fan zan horrekin.

- Horrekin ez dakit zenbat urte in eben, horixe ez dakit, ez dakit.

16. Hiru ile-apaintzaile belaunaldi

- **Erref:** ONA-049/009
- **Iraupena:** 0:05:39. **Hasi:** 00:29:32. **Bukatu:** 00:35:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Nikolas beraren historiaren gorabeherak. Ugartetarren hirugarren ile-apaintzaile belaunaldia jada abian dugu Oñatin.

Transkripzioa

- Eta soldautzan, hori, pelukero lanetan ibilli zan aitta, ez?
- Ni bai; aitta be baitta.
- Baiña berak bazekixan, baiña, pelukero lana edo?
- Bai ba, aurrez hemen ibilli zan illunkaratan ibiltten zan beste pelukerixa baten ibiltten zan.
- Eta zeatik zan, gustaten jakolako edo?
- Itxuria, itxuria, bai, bestela ez dakit, ez geuken guk aurretik, nik euki doten moduan ez eben harek ez eben euki aurretik iñor famelixan ofizio horrekin, ezta?
- Aurretik zebillen fabrikan eta...
- Hori da, Garaiñian, eta gero illunkaratan hor ibiltten zan itxuria, bai. Eta gauzak zela dien! Nere aittak Burgosen in eben soldautzaia eta hara joan zanian presentau zan kuarteleko barberixan barbero moduan. Ba orduan inddako harremanak barbero beteranuakin, ondiok jarraiketan dot nik famelixa harekin harremanak. Datorren hillian... Gero ni Burgosera joan nintzan neu be soldau, harein etxian egon nintzan. Harek billatu nostan lana Burgosgo pelukerixa baten; goizetan egoten nintzan kuartelian eta arratsaldian pelukerixa baten lana itten neben, bai. Eta harrezkero, pentsau eizu, gure ezkontzatar, nere ezkontzara bai, nere ezkontzara etorri zian, nere alabiana be baitta, ni be juaten naiz hara, daku harreman estua famelixa horrekin Burgosgo horrekin.
- Eurak be pelukerikuak, ezta?
- Ez, eurak ez, aitta zan pelukerua, hareik ez daue jarraitu.
- Osake orduan gremio barruan be harremanak eukitten (di)ttozue.
- Bai, gu behintzet, nere aitta zera zan gauza horreittarako zera itten zan, aguro sortzen eben hola amistadiak-eta. Batzuk, neu igual ez naiz hainbeste izango, baiña gure aitta bai, gure aitta...
- Orduan hasi ziñan hamalau urtekin aittari laguntzen. Ordurako ya berana zan lokala?
- Bai, ordurako ya bera bakarrik euen han; lokala beria ez, errentan. Hori lokalori zan abare batena, gure aittak kontaitten eben, Don Ramontxo, nik ez neben ezagutu. Eta, gaiñera, gauza kuriosua kontaitten eben. Gero gerria etorri zanian, abariairi eta holako gauzak gorrixak, gorrixak, badakitzu, nazionalistak eta kentzeia gura izaten (e)i osten, eta hori ez pasaitteko kriadien izenian ipiñi eben etxia, eta gero gerrak akabo zianian eta zerak, intentau eben bereganaketaia etxia, eta kriadorrek "tararí que te vi". Eta nere aittak dakon erreziho danak nik oinddiok gordeten (di)ttut, pagaitten otsan tipo baten kriadia zan bateri "una tal Perez de Cuadrado" donostiarra. Donostiarra edo behintzet... porke oin iñoiz periodikuan ikusten dot nik idatzixak hola "Cartas al Director" ta zera eta firmaitten daue Perez de Cuadrado batzuk eta burura etorten xat: "Aiba! Hau hareittako tartekoren bat izango dok, ba!" Perez de Cuadrado, bai. Eta gero, ba, ez dakit zela izan zan, eskeinttia edo aittak erostia gura izan eben, baiña ez, ez eben lortu. Ez, geixki nabil, hori gero etxe hori erosi eben Enrike Zabaleta, loterixia tokau xakon "Txapa", eta erosi eben zera, nere aittak ez eben lortu hori beraganekatarik lokal hori, erosterik ta horrek gizon horrek erosi eben eta gero egunen baten pentsau eben lokala

saltzeia ta neri saldu nostan, nik erosi neben lokala, aittak betik errentan euki izan dau lokal hori, euki izan eben, bai. Hemen loterixia jausi zan kasualidadia neu soldau nenguela "el año 63" jausi zan gordua.

- Bai, e? Oñatin.

- Bai, Oñatin. Eta orduan batzun batzuek kobrau ebein lau millue ta piku edo baikotzak. Ordurako diru asko izan zan. Orduan lau milluek emuten ebein interesak zian persona baten sueldua baiño gehixau, hillian, orduko persona baten sueldua baiño gehixau. "Lo que pasa que" gero gauzia joan dan moduan juanda, ba ezebezekin geldittu zan, baiña harek behintzet ha etxia erosi eben, beheko lokala neri saldu nostan...

[...]

Holaxen gauzak eta nik oin ba alabiari zera indda dakot, pasauta dakot, "en tercera generación".

17. Bizargintzako tresneria

- **Erref:** ONA-049/010
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:35:11. **Bukatu:** 00:39:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Gaur beste era batera ikasten da ile-apaintzea, akademietan; lehen praktikaren bidez ikasten zen. Zenbait erreminta eta garaiko tresneria gordetzen ditu Nikolasek, egunen baten museo antzeko zerbait egiteko ametsarekin. Labana eta aitzur zaharrak, zorrozkailluak, etab.

18. Ohitura zaharrak

- **Erref:** ONA-049/011
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:39:41. **Bukatu:** 00:42:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Lehen sarriago joaten zen jendea bizarginarengana. Baita kokotea eta patillak konpontzera ere. Txandak txapa batekin ematen zituzten. Lan orduak bukaera gabekoak ziren, batez ere asteburuetan. Zapatuetan bizartegian bertan afaltzen zuten, lanean jarraitzeko.

19. Igandetan ere lanera

- **Erref:** ONA-049/012
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:42:48. **Bukatu:** 00:44:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Bere aitak domeka goizetan ere egiten omen zuen lan garai baten, goizeko 6etako meza entzun ondoren. Lehenengo bezeroak urrutien zeuden baserrietatik etortzen ziren igandetan.

20. Tertulietarako ohitura; lan ordu luzeak

- **Erref:** ONA-049/013
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:44:24. **Bukatu:** 00:46:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Tertuliarako ohitura handia zegoen. Bezero batzuk zine egunetan, zinearen aurretik nahiz ondoren joan zitezkeen ilea moztera. Tabernariak ere gauean taberna itxi ondoren joaten ziren bizartegira.

21. Ile-apaindegiko anekdotak

- **Erref:** ONA-049/014
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:46:50. **Bukatu:** 00:50:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Mutikoen ilea moztea 50 zentimora igo zenekoa, eta beste anekdota barregarri batzuk.

22. Bizarginen beherakada

- **Erref:** ONA-049/015
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:50:35. **Bukatu:** 00:52:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Xaboa etxean prestatzen zuten. Garai batean bizarra kentzea zen bizarginen eginbeharrik nagusiena, baina bizarra kentzeko makina elektrikoak urrundu zuen bezero asko bizartegietatik. Ile-apaindegirako tresneria asko Eibarren egiten zuten.

23. Orrazkeren modak

- **Erref:** ONA-049/016
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:52:44. **Bukatu:** 00:55:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Hirurogeiko hamarkadan modan jarri zen labanaz ilea moztea. Nikolasek euren Elkartearen bidez, Donostian ikasi zuen mozte berria, norberak 'modeloa' eramanda.

24. Ilea mozteko erak

- **Erref:** ONA-049/017
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:55:12. **Bukatu:** 00:59:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Lehenago eta oraingo ilea mozteko erak.</p>

25. "A lo garçon" orrazkera

- **Erref:** ONA-049/018
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:59:42. **Bukatu:** 01:02:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

Andrak ez, baina neskatilak joaten ziren Doroteorenera "a lo garçon" moda izan zenean. Baita zirkuko jendea ere. Nikolas bizargin lanetan hasi zenean 8-9 bizartegi eta ile-apaindegi zeuden Oñatin gizonezkoentzako.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com